



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, manufaktura-enpresa bat gara, diseinu pertsonalizatuz apaindutako poltsak eta edalontziak diseinatu, ekoizteko (ekoizpenaren atal bat baino ez) eta entregatzeko betekizunak ditugu.

Eskema honetan gure balio proposamena aurrera eramateko, gure enpresaren barruan bete behar ditugun jarduerak azalduko ditugu:



Eskema honetan gure enpresak beteko ez duen jarduerak azalduko ditugu:



Garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen zereginak identifikatzea, alde batetik, gure enpresaren muina osatzen duten jarduerak, hau da, daukagun aktiborik garrantzitsuena “*know how*”: bi izango dira; lehenik, marrazkien eta esaldien kreaioak (diseinua), arlo hau, gure enpresaren balio proposamenaren atal bat da, eta ondorioz, ezinezkoa da beste enpresa baten esku uztea eta bigarrenik, publizitatea, gure enpresaren bereizgarria dena, hainbat baliabide erabiliz gauzatuko dugu gure publizitatea, adibidez, sare sozialak.

Beste enpresa batzuen esku utzi daitezkeen jarduerak, oso bestelakoak izango dira eta gure enpresaren hainbat arlo jorratuko dituzte; produktuaren banaketa, salduko ditugun produktuen ekoizpena edota biltegiaren garbiketa lanak. Adibidez, banaketaz arduratuko diren enpresak subkontratatzea erabaki dugu, gure produktuak supermerkatuei eta bezeroei ondo ailegatzeko, Fedex da kasu honetan arlo honek jorratuko duen enpresa. Lehenetsuna eman behar diegu gure enpresaren balio proposamena osatzen duten jarduerari, diseinua, webgunea, sare sozialak eta online denda (publizitatea) edota denda fisikoa, eta beste enprekin harremana mantentzea, kudeatzea eta sustatzea oso garrantzitsuak direlako gure enpresa aurrera egiteko.

Bestalde, gure enpresaren balio proposamena aurrera eramateko bakoitzak bete behar duen betekizuna honako hau da:

- Yaiza: Diseinuaren arloan lan egingo du, marrazkien diseinuan. Konkretuki, Yaizak, bezeroei erakarri ahal dien marrazkiak egiten ditu, geroago poltsetan inprimatzeko. Inprimatze lanen arduraduna da ere bai.
- Aiala: Diseinuaren arloan jokatzeko du ere bai, Yaizaren diseinuak apaintzeko esaldi erakargarriak egiten. Aialak, enpresaren esloganaren sortzailea da, eta Yaizarekin batera, poltsen diseinuaz arduratzen da. Beste aldetik, Aialaren erantzukizun handi bat, dendaren barruko salmentaz arduratzea, hau da, salmenta tokian egindakoak; azken kontsumitzaileari zuzendutakoak kudeatzen ditu.
- Irati: Elkarte harremanak (banatzaileekin) zuzentzen ditu (supermerkatuak, eta banatzaile ohiak) eta salmenta handiak kudeatzeko ardura du. Hortaz gain, enpresaren marketin estrategia bideratzen du, hau da, marketin-zuzendaria da.
- Noelia: Zuzendaritza-arloaren, ekoizpen-arloaren eta hornitze-arloaren arduraduna da. Bere betebeharrak nagusiak, hornitzaileekin eta banatzaileekin

harremanak zuzentzea, eta helburuak zehazten ditu, talde kide bakoitzak dagokion betebeharrak ondo burutzeko.

- Joseba: bi arlotan aritzen da nagusiki, horien artean, administrazio- eta zuzendaritza-arloa eta kontabilitate- eta finantzaketa- arloa. Bere eginkizun nagusienak, negozio operazioaz arduratzea eta diru mugimendu guztiak, bai barruan bai enpresatik kanpo, kudeatzeaz arduratzen da.